

IX. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Jainko Jauna, beti zuzen erabakitzen duzuna,
zure eskuetan uzten ditugu geure bizia eta izatea;
ken gugandik kaltetarako zaiguna
eta eman oraingo eta geroko bizitzarako zeure laguntza.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Dt 5, 12-15

*Oroi zaitetz morroi izan zinela
Ejiptoko lurrean.*

Deuteronomio liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Jai egizu larunbat eguna santu eginez, Jaunak, zure Jaungoikoak, agindu dizun bezala. Sei egun ariko zara lanean, eta orduan egingo dituzu zure lan guztiak; zazpigarren eguna, berriz, atsedeen eguna da, Jaunari, zure Jaungoikoari, eskainia.

Egun hartan ez duzu batere lanik egingo, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure idiak, ez zure astoak, ez zure abereak, ez zure etxean dagoen arrotzak; zure neskame eta morroiak ere atsedeen dezaten, zuk bezala.

Oroi zaitetz morroi izan zinela Ejiptoko lurrean; eta Jaunak, zure Jaungoikoak, atera zintuela handik esku azkarrez eta beso zabalez; horregatik agintzen dizu Jaunak, zure Jaungoikoak, jai egiteko larunbatean».

ERANTZUN SALMOA: Sal 80, 3-4. 5-6. 7-8a. 10-11ab

R/. **Egin pozez oihu,
laguntzaile dugun Jainkoari.**

Jo salteria, tunpa zaldabaia,
lirarekin kitara alaia.
Jo turuta ilberrian,
ilbeteko gure jai haundian. R/.

Israelek baitu ohitura,
Jakoben Jainkoak agindua;
Joseri ezarri zion legea,
Egiptotik irtetea. R/.

Mintzaira ezezaguna nuen entzun:
 «Kendu diot bizkarretik zama,
 haren eskuek utzi dute saskilana.
 Larrialdian oihu egin didazu eta askatu zaitut. R/.

Ez izan zeuregan besteren jainkorik,
 ez jauretsi jainko arrotzik.
 Ni nauzu Jauna, zure Jainkoa,
 Egiptotik nik zaitut atera.» R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Ko 4, 6-11

Jesusen bizia agertzen da gure izate hilkor honetan.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: «Ilunetik argia atera bedi» esan zuen Jaungoikoak, Hark egin du argi gure bihotzetan, guk ere argi egin dezagun, Kristoren aurpegiari darion Jainko haunditasuna ezagutzera emanaz. Ondasun hau buztinezko ontzitan darabilgu, honenbesteko indarra Jaungoikoarengandik dela ager dadin, eta ez guregandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina ez itotzen; larri gaude, baina ez etsita; erasopean bai, baina ez eskutik utzita; lurrera botatzen gaituzte, baina ez hiltzen. Nonnahi eta beti Jesusen heriotza daramagu gorputzean, Jesusen bizia ere gure gorputzean ager dadin.

Bizi garen bitartean, beti heriotzara eramaten gaituzte Jesusengatik; Jesusen bizia ere ager dadin gure izate hilkor honetan.

EBANJELIOA: Mk 2, 23–3, 6

Aleluia: Ik. Jn 17, 17b.a

R/. Aleluia.

V/. Zure hitza, Jauna, egia da;
 santu egitzazu egian. R/.

Gizonaren Semea larunbataren nagusi ere bada.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Bazihoan Jesus larunbat batez gari soroetan barrena, eta ikasleak bidenabar galburuak mozten hasi ziren. Farisearrek esan zioten: «Adizu, nolatan egiten dute larunbatez, zilegi ez dena?» Eta Hark esan zien: «Ez al duzue inoiz irakurri Dabidek egin zuena, bera eta bere gizonak beharaldian eta goserik gertatu ziren batean? Jaungoikoaren etxean sartu bainzen, Abiatar apaiz nagusi zela, eta apaizari ez beste inori jatea zilegi ez zaion eskaintz.

gainera lagunei eman».

Eta esan zion: «Gizakiarentzat egina da larunbata, eta ez gizakia larunbatarentzat. Beraz, Gizonaren Semea larunbataren nagusi ere bada».

[Sartu zen berriro Jesus sinagogan, eta han, besoa hartua zeukan gizon bat zegoen. Begira zegozkion, larunbatez sendatuko ote zuen, Bera salatzeke.

Jesusek gizon beso-iharrari esan zion: «Jaiki zaitez eta zatoz denon erdira». Eta han zaudenei galdera hau egin zion: «Larunbatez zer da zilegi on egitea, ala gaitz egitea? Bizia salbatzea ala hiltzen uztea?» Baina haiek isilik zeuden. Orduan, ingurukoei haserre batean begiratuz, haien bihotzen gogorrez mindurik, honela esan zion gizonari: «Luza ezazu beso hori». Luzatu zuen, eta bere onera etorri zitzaion besoa.

Orduan farisearrek, handik aterata, herodiarrekin batzar egin zuten, Hura nola galduko.]

Oparigaien gainekoa

Zure bihotzean uste on dugula etorri gara, Jauna,

geure eskaintzekin:

zure grazia lagun ospatzen dugun sakramentuak

garbi gaitzala.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Zure Semearen gorputz-odolez janaritu gaituzunok, Jauna,

gida gaitzazu, arren, zeure Espirituaren eragitez:

Zu egitez eta benetan aitorturik,

eta ez mingainez eta hitzez bakarrik,

zeruetako erreinuan sartzea irits dezagun.

Jesu Kristo.